

ZIZURKIL

'Andramari' jaiak Zizurkilen Goian bihar hasi eta igandera arte luzatuko dira

13.08.13 - 00:11 - IMANOL ARRATIBEL | ZIZURKIL

Amabirjinak, herriko festak, egun gutxi barrun hasiko dira. Hauek dira prestatu diren ekitaldiak: bihar abuztuak14, asteazkena, goizeko 07:00etan, Oilako biltzea. Parte hartu ahal izateko, nahitaezkoak izango dira brusa eta txapela gizezkoentzat eta baserritar jantzia emakumezkoentzat.

Arratsaldeko 13:00, festen hasierako suziria. Txapel Eguneko sortzaileek piztuko dute Iriarte Etxeko balkoian. Ondoren, oilasko biltzaileen dantzaldia. 19:00, Katerik gabeko bizikleta jaitziera hilerritik plazaraino. Sariak: afari bana irabazleari eta lehen herritarrari. Gaueko 21:00, Herri afaria plazan. 00:00, Laiotz dantza taldea.

Amabirjina Eguna

Osteguna, Amabirjin eguna, goizeko 11:00, Meza nagusia. 12:00, Umeen pilota partidak Zimiterioan. 18:00, Herritarren arteko herri kirol lehia. Segan: Mendizabal-Lizarazu/ Loidi-Intxausti. Horrez gain, proba bat baino gehiago egin beharko dute herritarrez osatuko bi taldeek. Ondoren, sagardo dastaketa plazan. Bitartean, Gugaz taldeak alaituko du giroa. Gaueko 23:00, Bertsolarien saio nagusia: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, Jon Maia, Amets Arzallus, Gai-jartzailea: Igotz Alkorta. Ondoren eta goizaldera arte, Gugaz taldea.

Ostiralean, eguerdiko 12:30ean, Herri kirol erakustaldia: Harri jasotzen: Aimar Irigoien eta Beñat Telleria. Aizkoran: Jon Irazu-Joseba Otaegi /Iñaki Azurmendi-Mikel Larrañaga. 14:00, Jubilatuen eta herri-kirolarien bazkaria. Seitan herriko taldeak alaituko du bazkalondoa. Arratsaldeko 18:00etan, Idi probak Plazaberrin. Preso eta errefuxiatuen gaua.

Gaueko 23:00, Korrontzi taldearen kontzertua Intxaur pilotalekuan. Ondoren eta goizaldera arte, Zesuma taldea plazan.

Umeen eguna

Larunbatean, Umeen eguna, 11:45, Kroserako izen-ematea. 12:00, Krosa.12:30, Buruhandiak. Ondoren, jolasak. 14:00, Bazkaria herriko umeentzat. 15:30-19:30, Puzgarriak, kart pista eta jolasak. 16:00, XXIII. Mus Txapelketa zentroan. Izen ematea: 15 euro/bikoteko. 22:30, Eskuz binako XI. Zimiterioko Pilota Txapelketa. Ondoren, Ai Ene taldea. Igandean, 12:30, Lorez jantzitako balkoi eta atari ederrenen erakusketa plazan eta sari banaketa. 17:30, Zizurkilgo VIII.Trikitixa txapelketa. Ondoren, Loatz musika eskolako ikasleen emanaldia. Mozorro gaua: gai librea. 21:00, Oilasko afaria. 00:00, Gau pasa Trakets taldearekin. Goizaldera, sari berezia emango zaio mozrorrik onenari. Talde onenari eta bakarkako mozorro onenari: 300 euro.

TAGS RELACIONADOS

andramari, jaiak, zizurkilen, goian, bihar, hasi, igandera, arte, luzatuko, dira

Publicidad



Hotel 4* en la Playa

Compara precios de hoteles entre más de 150 webs, encuentra tu hotel ideal y ahorra.

www.trivago.es



¿Un iPhone nuevo por 17€?

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco

www.megabargains24.com



Seguro Coche desde 200€

Tu Coche a Terceros con Asistencia desde 200€ y Todo Riesgo desde 300€. Sólo aquí

www.fenixdirecto.com



¿Eres ingeniero técnico?

Completa con nosotros el Grado oficial. Online. Mecánica, forestal, informática. Infórmate

www.online.ucavila.es



Para poder comentar debes estar [registrado](#)

Añadir comentario

Iniciar sesión con [t](#) [f](#)

Regístrate



Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)